

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN SAILA

425/2021 Foru Agindua, azaroaren 15ekoa, zeinaren bidez baimentzen baita Pastor Martín Jiménez en behin-behineko izendapena Aguraingo Udaleko idazkari lanposturako

Aguraingo Udalak atal honi jakinarazi dio aldi baterako izendapen horren beharra duela aurtengo azaroaren 8an eta 9an Francisca Irigoien Ostiza idazkaria ordezkatzeko, hura ez delako egongo.

Horregatik, proposatzen du udal horretan kontratazio eta langileen arduradun lanpostua betetzen duen Pastor Martín Jiménez funtzionarioa behin-behineko izendatzea.

Bat etorri estatu osorako gaikuntza duten toki administrazio funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 52.4. artikuluan xedatutakoarekin.

Kontuan hartu da Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunaren abenduaren 27ko 27/2013 Legeak 25. artikuluan xedatutakoa. Lege horrek Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea aldatzen du, 92.bis artikulua berria sartuz, non zehazten baita toki korporazioetan behin-behineko langileak izendatzeko eskumen eremua.

128/2018 Errege Dekretu horren hirugarren xedapen gehigarrian arautua betez, eta Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren 52/1992 Foru Arauaren 40. artikuluan jasotzen diren eskudantzien ondorioz, eta nire eskumenekoak diren ahalak baliatuz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Pastor Martín Jiménez Aguraingo Udaleko behin-behineko idazkari izendatzea, eginkizun horietan jardun dezan, 2021eko azaroaren 8an eta 9an, titularrak ez dagoen bitartean.

Bigarrena. Foru agindu honek atzerako eragina izatea aurreko xedapen zatian adierazitako datetatik aurrera.

Hirugarrena. Foru agindu hau jakinaraztea Aguraingo Udalarik eta Eusko Jaurlaritzaren Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, eta hura ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Laugarrena. Jakinarazten zaizun foru agindu hau behin betikoa da administrazio bidean, eta beronen aurka, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Lurralde Oreekaren Saileko diputatuari, hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera, edo administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez daiteke zuzenean, Gasteizko Administrazio Auzietarako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera. Hori guztia, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko azaroaren 15a

Lurralde Oreekaren Saileko foru diputatua
IRMA BASTERRA UGARRIZA

Lurralde Oreekaren zuzendaria
JESÚS MARÍA GUINEA DÍAZ DE OTALORA